


1. Zer da kontrol panela eta zertarako balio du?

Saioa hasi ondoren, kontrol panelera sartzeko, goiko atalean eskuin aldean ikusten den botoi gorria sakatu behar da.



gizarte erakundeak kultur eragileak harremana

Kontrol panela gizarte-erakundearen kontua kudeatzeko pantaila da eta 3 blokeetan banatzen da: **ikuskizunak eta ekitaldiak**, **nire zentroa** eta **formakuntza**.

1.1. Ikuskizunak eta ekitaldiak

Lehenengo atal hau erreserbak kudeatzeko da. Egindako jarduerak, egiteke dauden jarduerak, ordaindu dituzuen jarduerak eta ordaintzeke dauden jarduerak atal honetan ikusiko dituzue, besteak beste.

Kontrol panela

}

Ikuskizunak eta ekitaldiak



Uneko eskaerak
Formakuntzen eskaerak eta itzarote zerrendak



Ordainketak
Ordainketak kudeatu eta fakturak eskatu



Nire erreserbak
Zure erreserbak inprimatu jarduerara joan aurretik.

Formakuntza

Uneko formakuntza eskaerak
Artearekin hezi formakuntza-saioetarako

Formakuntzen ordainketak
Ordainagiriak

Nire izen-emateak
Zure ikastetxeak parte hartuko duen formakuntza-saioei buruzko informazioa

Nire zentrua

Nire zentro sozialaren datuak

Erabiltzaileak kudeatu

Ekipamendu gogokoenak

Erreserben historia

Nire kontua

Gertu Kultura akreditazioa

?

Zalantzak
dituzu?

Kontsultatu laguntza-
eskuliburua.

- **Uneko sarrerak**

Atal hau uneko erreserbak, eskaerak eta itzarote zerrendan dauden eskaerak kudeatzeko dago. Zuen uneko eskaeren eta erreserben egoera ezagutzeko lagungarria da. Esaterako, ordaindu gabeko erreserbak horrela agertuko dira atal honetan:

AC-RES-CS-20240513-313 Oso eskatua


PRINCIPE ZINEMETAKO LEHEN SAIORAKO SARRERAK


ZINEMA / INDEPENDENTEA / Emanaldia LEKUA: Principe Zinemak

DATA: Asteazkena, 2024, Maiatz 15

ORDUA: 17:00

LEKUA: 11

 ORDAIN TZEKE

 Ikusi xehetasunak eta igo froga


Eta erantzun gabe dauden eskaerak horrela:



AC-RES-EIM-20240805-163

MARE CLAUSUM

MUSEOAK ETA ERAKUSKETAK / HISTORIA / Bisita komentatua LEKUA: Euskal Itsas Museoa

LEKUA: 8

 ESKATUA

 Ikusi xehetasunak eta igo froga |  Editatu

Erreserba eta eskaeren bilateka azkar bat egiteko hainbat irizpide aukeratu daitezke goiko ataleko bilatzailean.

- **Ordainketak**

Erreserben ordainketa prozesua kultur-programatzaileekin adosten da. Jarduera batzuk doakoak dira, aldiz, beste batzuk, esku diruz edo transferentzia bidez ordaintzen dira.

Atal honetan, **transferentzia bidez** ordaindutako erreserbak bakarrik ikus daitezke. Funtzio desberdinen artean, ordaindutako erreserben **ordainketa agiriak** igotzeko aukera eskaintzen du plataformak atal honetan. Horretarako ondorengo pausuak jarraitu behar dituzue:

- Nahi duzuen erreserba aukeratu eta “Ikusi xehetasunak eta igo froga” aukera sakatu

AC-RES-CS-20240513-313


PRINCIPE ZINEMETAKO LEHEN SAIORAKO SARRERAK

ZINEMA / INDEPENDENTEA / Emanaldia LEKUA: Principe Zinemak

DATA: Asteazkena, 2024, Maiatz 15

ORDUA: 17:00

LEKUA: 11

  Ikusi xehetasunak eta igo froga

- Argibideak jarraitu eta agiria igo.

Prezioa eta ordainketa aukerak

Ordaintzeko argibideak

1. Egin transferentzia eta eskatu ordainagiria.
2. Eskaneatu edo atera argazki bat zure ordainketaren frogagiriari. Erreserba bakoitzaren barruan, igo ezazu "Justifikatu ordainketa" atalera, programatzaileak ikus dezan.
3. Jakinarazpen bat jasoko duzu garatzaileak bonoa berresten duenean.
4. Berretsi ondoren, nire sarrerak atalean erreserbak egiaztatu eta inprima ditzakezu.
5. Eskatu ordainketa-faktura, beharrezkoa bada.

Ordainketa justifikatu

Ordainagiria

 Ningún archivo seleccionado


Ordainagiria igo (pdf, docx, doc, jpg, jpeg, png)

Panelaren atal honek fakturak eskatzeko aukera ere ematen digu. **Faktura-eskaerak** aukera sakatzen badugu, egindako jarduera guztien zerrenda irekiko da. Zerrenda horretan nahi dugun erreserba bilatu beharko dugu eta **Faktura eskatu** botoia sakatu beharko dugu dokumentua deskargatzeko.

AC-RES-CS-20240805-738

PRINCIPE ZINEMETAKO LEHEN SAIORAKO SARRERAK

ZINEMA / INDEPENDENTEA / Emanaldia LEKUA: Principe Zinemak

DATA: Asteazkena, 2024, Abuztu 7

ORDUA: 16:45

LEKUAK: 12

[Ikusi xehetasunak eta igo froga](#)

Oso eskatua

Faktura eskatu

AC-RES-AMF-20240610-64

HONDARRIBIA. ZENTZUA ETA SENTIBERA. BISITA GIDATUA

BESTEAK / Bisita komentatua LEKUA: Hondarribia

DATA: Ostrala, 2024, Uztail 12

ORDUA: 11:30

LEKUAK: 12

[Ikusi xehetasunak eta igo froga](#)

Faktura eskatu

- **Nire erreserbak**

Hemen gauzatu ez diren erreserbak ikusiko dituzue eta, behar izanez gero, sarrerak inprimatzeko aukera izango duzue atal honetan. Jarduera guztientzat ez da beharrezkoa sarrerak inprimatzea. Beharrezkoa izanez gero, programatzaileek esango dizuete.

1.2. Nire zentroa

Bigarren atal honek aukera desberdinak eskaintzen dizkigu, gure kontuaren eta zentroaren informazioaren kudeaketarekin zerikusia dutenak.

Kontrol panela

Ikuskizunak eta ekitaldiak


 Uneko eskaerak Formakuntzen eskaerak eta itzarote zerrendak	 Ordainketak Ordainketak kudeatu eta fakturak eskatu	 Nire erreserbak Zure erreserbak inprimatu jarduerara joan aurretik.
--	--	--

Formakuntza

Uneko formakuntza eskaerak Artearekin hezi formakuntza-saiotarako
Formakuntzen ordainketak Ordainagiriak
Nire izen-emateak Zure ikastetxeak parte hartuko duen formakuntza-saiotei buruzko informazioa

Nire zentrua

Nire zentro sozialaren datuak Erabiltzaileak kudeatu Ekipamendu gogokoak Erreserben historia Nire kontua Gertu Kultura akreditazioa


Zalantzak dituzu?
 Kontsultatu laguntza-eskuliburua.

- **Nire zentro sozialaren datuak:** zentroaren informazio guztia biltzen duen atala.
- **Erabiltzaileak kudeatu:** harremanetarako pertsonaren datuak (Gertu Kultura kontaktua) eta zentroaren zuzendariaren datuak islatzen dira atal honetan. Harremanetarako pertsonak bere erabiltzailea izango du, baina zentroko beste langileentzako erabiltzaile gehiago sortu daitezke [hemen](#) agertuko zaizuen galdetegia betez.

Erabiltzaileak gehitu

Beste erabiltzaile bat gehitu lankide edo zuzendariren batek kudeatu nahi badu edo zentroak egiten dituen erreserben berri izan nahi badu.



Gehitu nahi duzun langilea lehendik badago, bila ezazu zure helbide elektronikoa adieraziz eta bilatu klik eginez. Ondoren, bilaketa-emaitezatik, egin klik "Gehitu langilea" botoian.

HELBIDE ELEKTRONIKOA

Ezarri

<p>Izena *</p> <input type="text"/>	<p>Abizena *</p> <input type="text"/>
<p>Helbide elektronikoa *</p> <input type="text"/>	<p>Rolak *</p> <input type="text" value="- Aukeratu -"/>
<p>Kargua *</p> <input type="text" value="- Aukeratu -"/>	<p>Phone number *</p> <input type="text"/>

Posta elektronikoa baliozkoa. Sistemako mezu elektronikoz guztiak helbide honetara bidaliko dira. Helbide elektronikoa ez da publiko egiten, eta pasahitz berri bat jaso nahi baduzu edo zenbait albiste edo jakinarazpen posta elektronikoz jaso nahi badituzu bakarrik erabiliko da.

Kudeatzailea:

- Zentro edo zerbitzuaren langileak webgunean erabiltzaile gisa erregistratzea baimentzen du
- Sarrera eta prestakuntzen erreserbak egin.
- Zentro edo zerbitzuaren erreserba guztien abisua jaso.
- Egitaraua eta prestakuntzei buruzko informazioa jaso.

Langilea

- Sarrera eta prestakuntzen erreserbak egin dezake.
- Egitaraua eta prestakuntzei buruzko informazioa jaso.

Dena batera, tarterik, punturik edo marrarik gabe

Erabiltzaileari jakinaraztea
 Bidali posta elektronikoa erabiltzaileari, lehenengo aldiz Gertura sartzeko jarraibideekin



Saioa lehen aldiz hasteko, erabiltzaileak sartzeko pasahitz berria eskatu beharko du. Erabiltzaile-izena alta-formularioan adierazitako posta elektronikoa izango da.

- **Ekipamendu gogokoenak:** atal honetan gehien gustatzen zaizkizuen ekipamenduak gorde ditzakezue.
- **Erreserben historia:** egindako erreserba guztiak topatuko dituzue atal honetan. Fakturak ere hemen eskatu daitezke.

<p>AC-RES-CS-20240805-738 PRINCIPE ZINEMETAKO LEHEN SAIORAKO SARRERAK DATA: 2024/08/07 ⌚ 16:45 LEKUAK: 12</p> <p> Faktura eskatu</p> <p>Xehetasunak ikusi</p>
<p>AC-RES-RZ-20240729-161 COLLAGEA DATA: 2024/08/02 ⌚ 12:00 LEKUAK: 10</p> <p>Xehetasunak ikusi</p>
<p>AC-RES-EIM-20240724-763 SERIGRAFIA TAILERRA DATA: 2024/07/26 ⌚ 11:00 LEKUAK: 10</p> <p>Xehetasunak ikusi</p>


- **Nire kontua:** kontuaren informazioa biltzen duen atala (pasahitza, emailak, etab.)

1.3. Formakuntzak

Atal honetan formakuntzen inguruko informazioa izango dugu: Uneko formakuntza eskaerak (egin baditugu), egindako formakuntzen ordainketak, fakturak eskatzeko atala, izen emateak egiteko atala, etab.

Kontrol panela

Ikuskizunak eta ekitaldiak



Uneko eskaerak
Formakuntzen eskaerak eta itzarote zerrendak



Ordainketak
Ordainketak kudeatu eta fakturak eskatu



Nire erreserbak
Zure erreserbak inprimatu jarduerara joan aurretik.


Formakuntza



- Uneko formakuntza eskaerak**
Artearekin hezi formakuntza-saioetarako
- Formakuntzen ordainketak**
Ordainagiriak
- Nire izen-emateak**
Zure ikastetxeak parte hartuko duen formakuntza-saioei buruzko informazioa

Nire zentrua

- Nire zentro sozialaren datuak
- Erabiltzaileak kudeatu
- Ekipamendu gogokoenak
- Erreserben historia
- Nire kontua
- Gertu Kultura akreditazioa



**Zalantzak
dituzu?**
Kontsultatu laguntza-
eskuliburua.